

EKONOMIA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	IÑAKI SETOAIN	Maila	1. BATXILER	Ikasturtea	2020-21
-----------	---------------	-------	-------------	------------	---------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Ekonomia gure eguneroko biziaren alderdi guztietan ageri da; herritar guztiek ezagutu behar dituzte gertaera ekonomikoak azaltzen dituzten oinarrizko arauak eta ekonomialariek eta hedabideek gertaera horiek aztertzeke erabiltzen duten mintzaira berariazkoa. Ez da posible errealitatea zuzen ulertzea kontuan hartu gabe pertsonen, banaka nahiz taldeka, beren beharrak nola ase bilatzean duten portaera ekonomikoa, ezta ulertu gabe ere horretarako behar diren ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta antolaketa, eta baliabide urrien banaketa.

Beharbada, jakintzagai gisa, ekonomiaren beste zientzia sozialekiko bereizgarri nagusia ez da haren objektua, ikuspegia baizik.

Inoiz bada-eta, ezagutza ekonomikoek gaur egun hartzen dute balio handiagoa, herritar fidagarriak eta jantziak izateak eta herri baten baliabideak zuzen administratzeak duen garrantziagatik; horrexek jartzen du agerian ekonomiak gizartean duen munta, haren ezagutzari esker sustatzen ahal baita bizi kalitatearen hobekuntza, aurrerapena eta gizarte ongizatea.

OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasunak eraginkortasunez eskuratzeko eta curriculumean benetan txertatzeko, ikasleen gaitasun bat baino gehiago aldi berean lantzeko aukera emanen dieten ikaskuntza jarduera integratuak diseinatuko dira, ikasia errealitateari aplikatu diezaioten.

Landuko diren gaitasunak legeak jasotzen dituenak dira; Hizkuntza komunikazioa, matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak, gaitasun digitala, ikasten ikastea, gaitasun sozial eta zibikoak, ekimena eta ekintzailtza, kontzientzia eta adierazpen kulturalak.

Informazio gehiagorako: <https://bon.navarra.es/eu/buletina/-/sumario/2015/127/> (3.orrialdea, 5. artikulua)

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

[Batxilergoko kurrikuluma](#)

1. Blokea: Ekonomia eta eskasia. Ekonomia-jardueraren antolaketa: 1. eta 2. unitate didaktikoak
2. Blokea: Ekoizpen-jarduera: 3. unitate didaktikoa
3. Blokea: Merkatua eta prezioen sistema: 4. eta 5. unitate didaktikoak
4. Blokea: Makroekonomia: 6., 7. eta 8. unitate didaktikoak
5. Blokea: Ekonomiaren finantza-zehazpenak: 10. eta 11. unitate didaktikoak
6. Blokea: Ekonomiaren nazioarteko testuingurua: 12., 13. eta 14. unitate didaktikoak
7. Blokea: Ekonomia desorekak eta estatuaren papera ekonomian. 7., 8. eta 9. unitate didaktikoak

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

25/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa

2015eko 127. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 2koa

[Batxilergoko kurrikuluma](#)

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
8	1 Ekonomiaren funtsa	10	4 Merkatuaren funtzionamendua	3	8 Adierazleak eta Oreka Makroekonomikoa
9	2 Antolakuntza eta hazkundera	8	5 Merkatu motak	6	7 Estatuaren eginkizuna
1	Azterketa	1	Azterketa	11	9 Estatuaren kontuak
11	3 Ekoizpena	1	7 Estatuaren eginkizuna	1	Azterketa
1	Azterketa	8	8 Adierazleak eta Oreka Makroekonomikoa	10	10 Dirua eta moneta-politika
		9	6 Lan -merkatua	9	11 Finantza-sistema. Burtsa
		1	Azterketa	1	Azterketa
				7	12 Nazioarteko merkkataritza
				3	13 Europar Batasuna eta globalizazioa
				5	14 Munduko ekonomiaren desorekak
				1	Azterketa

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Gai bakoitzaren **aurkezpena eta sarrera irakasleak** azalduko du; Aurkezpenean ikasleek gaiaren inguruan duten informazioa eta ezagutza komentatuko dugu. Materiala **klasean irakurri** eta aztertuko da. Horretarako ikasleek **ozenki** eta txandaka irakurriko dute. Horrek gainontzekoen **arreta** eskatuko du. Dudak denon aurrean aurkeztuko dira

- Mc Graw Hill-en EKONOMIA liburua
- Bideoak, egunkariak, aldizkariak, Internet, ...
- Ikasgaiko classroom-a
- Moodle plataformako gela birtuala

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

Ebaluazio bakoitzeko nota kalkulatzeko pauso bat azterketen batez bestekoa egitea da. Azterketaren batean 3 baino gutxiago ateratzen bada, derrigorrez berreskuratu beharko da. 3 eta 4,5en arteko nota ateratzen bada, ebaluazioa gainditzeko batez bestekoa 5 edo gehiago izan behar da. Gertatu ezean zatia berreskuratu beharko da.

Portzentajeak:

- Azterketen puntuazioak notaren %90-a suposatuko du eta batez bestekoa eginez kalkulatu da.
- Klasean ikasgaia lantzeko eta euskaraz hitz egiteko erakusten den jarrera eta lana eta etxerako lanek notaren %10-a emanen dute. Jarrera negatiboek, notan, eragina bera izanen dute. (Azterketetan lortzen den puntuazioari %90-a aplikatzean, ematen duen nota murriztuko da.)

TRESNAK EDO BALIABIDEAK

1.- Ikasle bakoitzak egiten duen **eguneroko lan eta jarreraren balorazioa** irakasleak egiten duen **etengabeko behaketa**

- 2.- **Azterketak**, beti ere, landutako kontzeptuei eta prozedurei lotuta
- 3.- Mugikorrek institutuan debekatuta daudenez, irakasleak jaso behar izanez gero puntu bat jaitsiko dio ikasleari ebaluazioan.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Ebaluazio bakoitzean bi edo hiru frogak egiten dira. Froga bakoitzean gehienez hiru gai sartuko dira. Froga guztiek zati teoriko eta zati praktikoa izanen dute. Bakoitzaren balioa aldatuko da frogaren arabera. Hala ere gehienetan zati teorikoak praktikoa baino balio handiagoa izanen du, eta inoiz ez txikiagoa. Teoria test moduan planteatuko da. Teoriaren nota kalkulatzeko, gaizki egiten diren test galderek azterketaren puntuazio osoan kentzen dutela kontuan izan behar da. Erantzun oker bakoitzak, galderak balio duen erdia kenduko du. Galdera erantzuten ez bada, ez du ez gehitu ezta kendu ere egingo.

Borobiltzea:

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ebaluazio bakoitzari dagozkion frogak gainditu ezean, asti izanez gero, notak eman baino lehenago errekuaratzeko aukera emanen da. Astirik ez balego berreskuratzeko azterketa hurrengo ebaluaketan egingo litzateke. Berreskurapen azterketetan gaizki egiten den test galdera bakoitzak, soilik bere balioaren herena kenduko du.

Nahikotasunean gainditu gabeko zatien azken berreskurapen azterketa egiteko aukera izanen da. Dena gaindituta dutenek nota borobiltzeko azterketa bat egin **beharko** dute. Honek ez du nota jaisteko eragina izanen..

Nahikotasuna gainditzen ez duten ikasleek, irakasleak zehaztuko duen Ez-ohiko azterketa egin behar izango dute.

KANPOKO EBALUAZIOA

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.